



Koskontako bidea, 8.  
31.770. LESAKA  
Telf. - Fax: 948-637154  
E-mail: andramari@lesaka.net

**RESIDENCIA DE ANCIANOS ANDRA MARI**  
**ANDRA MARI ZAHARREN EGOITZA**

**LAN POLTSAKO FUNTZIONAMENDU OINARRIAK ZAINZAILE ETA ZAINZAILE**  
**LAGUNTZAILE ORDEZKAPENETARAKO ANDRA MARI ZAHARREN EGOITZAN**

- Lan-poltsa erabiliko da zaintzaile eta laguntzaileak kontratatzeko, langile egonkorak ordezkatzeko helburuarekin, oporrak, bajak, ordaindutako baimenak, norberaren gauzak, eta abarreatatik.
- 3 urteko baliotasuna izanen du 2014/04/24-tik hasita, non data horretan onartua izan da lan-poltsa Andra Mari Zaharren Egoitzaren Patronatuaren aldetik.
- Puntuazio gehien lortu duten pertsonak izanen dira deituak lehenengo (kontaktu telefono bat utzi behar dute, ahal bada telefono mugikorraren zenbakia baita ere).

Lan postu bat betetzeko beharraren aurrean:

- Eskainitako lanpostuari uko egiten bazaio eta ez bada behar bezala justifikatzen, azken lekura pasako da. Hau bigarren aldiz errepikatzen bada lan-poltsatik kanporatua izanen da.
- Uko egiten bada justifikatutako arrazoiak argudiatuz, egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da abisuaren hurrengo 7 egun naturalen barruan. Aipatutako arrazoiak ondorengoak izanen dira:

- Lana
- Lanpostuarekin lotura duten ikasketak
- Amatasun atsedenaldea
- Gaixotasuna
- Familiakoaren zainketa gaixotasunagatik
- Mediku bisitak

Leku bera mantenduko da, baldin eta justifikazioa aurkezten badu. Justifikaziorik ez bada aurkezten azken lekura pasatuko da, zerrendatik kanporatua geldituko delarik justifikaziorik gabeko uko egitea errepikatzen bada.

- Beste pertsona batengana pasatzen denean arrazoi justifikatuengatik eta honek onartzen du, lan kontratuaren luzapena gertatuz gero, bere lanpostuan mantenduko zaio (zerbitzuaren funtzionamenduaren onurarengatik).





Koskontako bidea, 8.  
31.770. LESAKA  
Telf. - Fax: 948-637154  
E-mail: andramari@lesaka.net

**RESIDENCIA DE ANCIANOS ANDRA MARI**  
**ANDRA MARI ZAHARREN EGOITZA**

• Dagokion pertsonari egun batean zehar 3 aldiz deituko zaio eman dituen telefonoetara, ez bada erantzuten mezu bat bidaliko zaio jakinarazten 24 orduren tartean ez bada zerbitzuarekin kontaktuan jartzen zerrendako hurrengo pertsonari deitzera joko dela.

Ordezkapena larrialdiarekin egin behar den kasuetan edo 48 orduko epe batean baino lehenago, lehenengoak ez baluke erantzuten 3 deiei (fijoa eta mugikorra), hurrengoei deitzen joango litzateke onartzen duen batekin kontaktatu arte.

Lesakako Andra Mari Zaharren Egoitzako patronatuak gaiak ebatzi ahal izango ditu eta neurriak hartu, sortu daitezkeen egoera edo zalantzekin, oinarri hauei dagokionez.

Lesaka , 2014ko Apirilaren 24 a

**LEHENDAKARIA**



**Izenpetua: Peio Etxabide Gartzia**

